

## KULTURA MITO OSASUNGAITZAK DESERAIKITZEN

Pako Aristi

Mikel Laboaren izena tekleatu dut Googlen eta lehen orrialdean jada, *Diario de Sevillaren* berri batekin egin dut topo: "*Fallecen los cantautores Joan Baptista Humet y Mikel Laboa*". Eta leadaren lehen esaldian hala dio: "*La música española ha perdido a dos de sus referentes históricos recientes más indiscutibles*".

Mikel Laboa espainiar musikaren parte al zen, eta ezein sevillarrek ez al zekien hartaz ezer? Eros al zitezkeen bere diskoak Sevillan? Zenbat aldiz elkarrizketatu zuten *Canal Surren Loco de la Colinak* edo *Juan y Mediok*? Ikasten al ziren haren kantuak andaluziar kantu sakonen eskoletan? Plaza-taldeek egiten al zituzten haren kantuen bertsioak hondartza-airea emanetz?

Gaiaren geografia-zirkulua gehiago zabaldua, noiz programatu zuen azkeneko aldiz *Radio Nacionalek* Laboaren kanturen bat? Noiz ikusi ahal izan zen azkeneko aldiz telebista publikoaren elkarrizketa batean? Erreferentziazko espainiar musikaria baldin bazen, izan al zuen espainiar hedabideetan erreferentziazko lekuren bat Joaquin Sabina, Miguel Bosé edo Raphaelen alboan?

*Diario de Sevillaren* artikuluarekin jarraituz, bere lana, kantautorea, musikaria eta euskal olerkaria zela esanez deskribatzen da eta ahozko euskal tradizioa zabaltzen eta eguneratzen jardun zuela esaten da. Hainbat aldiz erabiltzen dira "euskal kultura" eta "euskal kantautorea" terminoak. "Euskal" hitza, halako urruntasun batekin erabiltzen da, bai horiek, jendaila hori, han goiko haiek, auskalo zer abesten duten haiek, niri bost axola, baina dena den, hori bai, Espainiaren zati direnak nahi badute eta ez badute. Euskal dena irentsi egiten dute berena eta espainiarra bailitzatekeen, baina soil-soilik menderakuntzan oinarrituta, eta inoiz ere ez euskaltasuna erakartzen dituen maitasunezko zerbait bailitzan hartuta, aberasten dituen eta zaindu eta mimatu behar duten zerbait bezala alegia. Euskal kultura hori sortzen duten euskaldunei halaber, ez zaie eskaintzen aukerarik beren buruak euskaldun edo espainiar moduan deklaratzeko, atxikimendu librea, edo errefusatze libre eta soila adierazteko errespetuzko sistemaren bidez.

Ahozko euskal tradizioaz hitz egiten dute. Nolakoa da ahozko euskal tradizioa? Espainieraz al da? Horra hor aztarna interesgarri bat: ahozko euskal tradizioa euskaraz egina da. Tradizioak historia esan nahi du, mende asko igaro izana, hizkuntza-memoriaren jalkina. Zergatik ez dago ahozko euskal tradiziorik espainieraz? Ez ote da egia, agian, hainbeste aldiz errepikatzen den hori, alegia,

espainiera euskaldunen hizkuntza bat gehiago baino ez dela? XX. mendearen hasieran, 600.000 pertsona bizi ziren Hego Euskal Herrian eta horietatik 500.000k euskaraz hitz egiten zuten, espainiar estatua gure hizkuntzaren aurka bi mendetan zehar erabiltzen ari zen lege murriztaileak gorabehera.

*Diario de Sevillan* euskal olerkari moduan definitu dute Mikel Laboa. Mikel kantaria izan zen, musikaria eta aparteko aktorea, baina ez zen olerkaria izan. Gertaera goibel horren berriaren eta egunkari horren erredakzioaren artean dagoen distantziak eta agentziek beren informazio-mezuak egiaztatzen jartzen duten arreta eskasak justifika lezake merezi duen desenkusa bat, baina hara non, egunkari berean, oso hurbilekoa den baten deklarazioak daude jasota, Iñiqui Arriolarenak, Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusiarenak, eta goraipatu egiten ditu "la belleza de sus canciones y de la poesía que escribía". Bere kantuen edertasuna, egiazki hunkigarria da, baina, ez dago inon Mikel Laboaren poesiarik, inoiz ez zuen halakorik idatzi, inoiz ez zuen halakorik argitaratu, inoiz ez zion musikarik jarri bere testu bati. Baina argi eta garbi suma, antzeman, dezaket Arriolaren hitzen ezkutuko oihartzuna: "Mikel Laboa era un tostón, no tengo ni puñetera idea de lo que hizo, pero es famoso, he de subirme al carro y declarar algo bonito". Horrela, klase politikoak, sona handiko arkitektoek urretan kobratutako gehiegizko eraikin handi-mandietako zarrastelkerietan oinarritutako kultura-estrategiak bultzatzen eta kulturaren sortzaileak erdeinatzen dituzten horiek, kantariaren hilotza besarkatzen dute, berek grinak pizten dituztela jakinda eta kalkuluak ere eginda, agian, grina horien tantoren batzuk beren kaskarkeria disimula dezaketela.

Baina itzul gaitezen *Diario de Sevillara*. Odon Elorzaren deklarazio batzuk ere jasoak zituen. Hauxe zioen: "Mikel Laboa fue y seguía siendo un referente cultural que traspasó los límites localistas y se proyectó a nivel nacional al frente de la vanguardia en los años 60-70". Mikel Laboa maitatua izan zen bere herrialdean, Euskal Herrian, eta bere sorkuntza-lana garatu ahal izan zuen bere herrialdeko jendearen laguntzari eta bulkadari esker. Harridura sortzen dit goi-mailako herri-kargudun batek herrialde hori, nik bere hitzak gaizki ulertuak ez baditut, *muga lokalista* moduan definitzeak. "Muga" mozten duen zerbait da, zabalkuntza buxatzen duena. "Lokalista" eufemismo oro alde batera utzita, herri txikiko, baserritar, gisa ulertzen dugu denok. "Proyectó" horrek, proiektatzeak, baliatu zela adierazten du, balioa eman ziotela. Eta "nivel nacional" horrek "nazioan" arrakasta izan zuela esan nahi du, Espainiako "nazioan" zehar noski. Hemen edozer gauza esaten da, eta adimenaren malgukiak erabat lokartuta dauzkagunez, dena ontzat ematen dugu. Ez

dut inondik inora ikusten frantziar presidentea esaten, alegia, *Georges Brassensek "frantziar lokalismoaren mugak gainditu eta Italian zehar proiektzioa izan zuen, gainera Errumanian arrakasta izanez"* esaten. Eta gehitu ere egingo nuke, baserritarra edo herri txikikoa, edertasun gorena kanpoan, urrun, metropolian, Madrilen edo New Yorken agian ikusten duena besterik ez dela, hemengo kultura, hemengo dena, nola edo hala jasaten duen bitartean eta duen gutxiagotasun-komplexuaren mendeko da, herri-diruarekin amerikar artistak, espainiarrak, etab. ordainduz, guri, hain grisak garenoi, distira eman diezaguten.

Halabeharrez bi politikari sozialista atera zaizkit mahukatik, hain zuzen ere hauteskunde-kanpaina betean, non Patxi Lopezek, berak esango lukeen moduan, euskal kulturaz duen maitasuna euskaraz frogatu behar duen, baina, ez gobernuan dagoen nazionalismoak, ez eta bere hedabideek ere, ez dute inondik inorako luzimendurik izan euskal kantugintzarekiko. Gizarteak maite dituen ikurren manipulazioa maila guztietan gertatzen da. Mikel Laboa zenaren errautsei agur egin eta egun gutxira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak barkamena eskatu behar izan zion publikoki Laboaren familiari gezur bat esateagatik, izan ere, Kepa Junkerari emandako diru-laguntzarengatik etorri zitzaien kritika-zaparradatik babesteko, Mikelek ere disko bat argitaratzeko Eusko Jaurlaritzaren dirua jaso zuela esan baitzuten.

Eta Kepa Junkerarekin euskal musikaren zabalkuntza munduan zehar espainiar, hispaniar, afrikar eta gainerako kantariekin egitearen gaia irten da plazara. Ikusi al da inoiz kanpainaren bat, frantziar gobernuarena adibidez, eskurago dagoelako, frantziar kantuak Estoniako kantariekin, errusiar ahotsekin edota Bulgariako koruekin zabaldu behar dituztela esanez? Nazio serioek ez dute jolasik egiten horrelako gauzekin eta legez ezartzen dituzte beren irrati-telebista publikoetan herrialdeko musikaren kuotak, %50 arterainokoak, eta Lituaniako kantuak ezagutzen baditugu, hain zuzen ere ikusi eta entzun ahal izan ditugun lituaniar kantariengatik da eta ez Cadizko inauterietako txantxak egin ditzaketen imitazioen bitartez.

Azkenik, galdera handia dago tartean: Nor edo zein da euskal kantaria? 1985ean egin behar izan nion galdera hori neure buruari Euskal Kantagintza Berriaren historia idatzi nuenean. Eta erantzuna oso soila eta xumea izan zen: euskaraz kantatzen duena. Horregatik baztertu behar izan nuen Mucedades, baina baita Kortatu ere, artean espainieraz abesten zuen-eta, bere lehen diskoan bizpahiru kantu baino ez baitzituen argitaratu euskaraz. A zer nolako kritikak jaso nituen horregatik! Izan ere, bai baita hemen ezker bat, lehen "erradikal" deitua, euskara erabat bazterrean uzten duena eta ez jakitearen bekatu txiki hori,

horretarako gogorik ez izate hori eta ikasi nahi ez izate hori, barka litekeen zerbait dela uste duena.

Barkatzen ez dutenak, asmo txarreko kazetari batzuek dira, honelakoak galdetzen dizkigutenak: "*Mikel Erentxun ez al da euskal kantagintzakoa?*" Bada ez, erantzuten dut nik. Julio Iglesias Estatu Batuetako kantagintzaren historiaren zati al da Bruce, Dylan eta Dolly Partonen alboan? Ez, espainiar kantaria da, Miamin finkatua. Mikel Erentxunek espainiar kantuak egiten ditu eta Donostian finkatuta dago, Donostian jaioa da, pop-rocka egiten du eta oso ondo egin ere. Besterik ez. Zein arazo izan behar du Erentxunek horrekin? Batere ez. Eta, egunkariak? Ezta. Eta euskal kantagintzak? Gutxiago oraindik.

Espainiar kulturaren aldetik euskal kulturaren irensmena ikusten da, baina izenez bakarrik, argi gera dadila oraindik ez dira gugandik bereizten, baina nortasun hartakoa osorik izateak ekarriko lituzkeen eskubiderik gabe, espainiar hedabide guztietan elkarrizketak eginez adibidez, edota udako beren jaialdi nagusienetan kontzertuak emanez, etab. El País egunkariak, beste hainbatek bezala, Mikel Laboaren heriotza-berria argitaratu zuen, baina, egunkari horrek bizirik daramatzen azken 30 urteotan, zenbat aldiz elkarrizketatu zuen bizi zen artean? Gehiegi al litzateke inoiz ez zuela elkarrizketatu esatea? Bada, ausartu egiten naiz hori esatera. Askoz ere gehiago hitz egingo zuketen hartaz portugesez Dulce Pontesekin batera kantatu izan balu. Izan ere, kultura batek, politika batek, herrialde batek, asimilatzea baino kartzela okerragorik ez dago eta, ez zu gurtzeko eta bultzatzeko, noski, zu ahaztarazteko eta zutaz hil zarenean artista handia izan zinela esateko baizik.

Zergatik ari naiz horretaz guztiaz hitz egiten? Nortasunaz, identitateaz hitz egiten ari garelako eta nortasuna, pieza horiekin guztiekin, gehi norbere estatu batekin eratzen da. Mugak desagertzeaz asko hitz egiten da, baina indarrean dauden estatuak ez dute haiek kentzerik proposatzen eta, gaur-gaurkoz, estaturik gabeko herri bat, inorena ez den lurrean aurkitzen da. Horri beste honen antza hartzen diot: aberatsek, oso aberats direnek, elkarrizketetan diruari garrantzia kenduz hitz egitea. Garrantzi handia du ez baldin baduzu eta garrantzia galtzen du daukazunean. Natural bihurtzen baita. Estatuarekin gertatzen den moduan. Naturala da espainiar goraipamenak maila guztietan egitea eta banderak ezartzea. Euskaldunok gauza bera eginez gero, nazionalismo amorratu eta baztertzailea da. Estatu batek normaltzat bihurtzen du bere kulturaren eta hizkuntzaren zabalkundea eta ez du topo egiten bere hizkuntza-eskubideetan murrizketak edo ebaketak egiten dizkion beste estatu batekin. Autonomietan oso kontuz ibili behar da espainiartasunaren mugekin talkarik ez egiteko.

Eta adimeneko kolonialismoa arrapala bihurtzen da. Duela gutxi irakurle batek galdera bat egin zuen egunkari batean, Arzalluzek, Garaikoetxeak, Jonan Fernandezek, Pagola Bikario Nagusiak, eta abarrek idatzitako liburu interesgarriez, alegia, ea noiz euskaratuko diren. Galdera ez da zuzena. Galdera zuzena beste hau da: Zergatik ez dituzte euskaraz idatzi? Aurreko astean beste hau esan zidan galego hark bezala: *carallo, eres vasco y hablas mejor que yo. Yo es que eso del gallego... mi hermana si, pero ella es, ya me entiendes, un poco nacionalista*. Hau da, espainieraz hitz egitea da naturala, beste hizkuntza batzuetan hitz egitea politika da. Errealitatea, hain zuzen ere, horren aurkakoa da: naturala galegoz, katalanez, euskaraz hitz egitea da eta espainieraz hitz egitea politika hutsa da, izan ere, politikaren bulkada hutsez, gehi indarrak lagunduta, gehi derrigortuta, gehi geure buruaren estimazioari kalte eginda, gehi espainiar estatuak sortutako konplexuak ezarrita (gogoratu espainieraz mintzatzean trabatzen den euskaldunaz egindako txistek), egoera honetara iritsi gara. Eta egoera honek eraman du, adibidez, Amaia Montero, Oreja de Van Gogh taldeko kantari-ohi famatua, espainierazko kantaria izatera: bere amak Baztango euskara ederra mintzatzen zuen, baina bere alabari ez zion hitzik ere irakatsi. Beren bizitza osoan zehar espainieraz hitz eginak dira.

Azken batean, historia guztiak batzen dira eta hari guztiak biltzen errealitatea ehuntzeko.

Zergatik ari naiz horretaz guztiaz hitz egiten? Horretaz guztiaz hitz egiten zelako, hitz egiten hasi zelako, hori guztia planteatzen zelako *Ez Dok Amairu* taldean eta baita, gero, Oteizak euskal artistak Madrilera begiratzeari utzi eta bere herrialdean zentratu behar zuela esan zuenean ere. Haiek euskaraz kantatzea erabaki zuten, euskal kantagintza euskaraz izango zela erabaki zuten, beren abestiekin herria egiten ahalegindu ziren eta lortu ere lortu zuten. Zeren, gerra-kantuak, bake-kantuak, maitasun-kantuak, adiskidetasun-kantuak, protesta-kantuak, bihotzeko kantauak, adimen-kantuak eta arimaren kantauak ziren. Eta beste gauza bat ere bai: grina handiz maitatu zuten Nafarroa eta hari eskaini zizkioten beren abestirik onenetako batzuk. Eta Iparraldea maitatu zuten eta berari eskaini zizkioten abesti gorenak. Lurraldeak biltzeko lana egin zuten orbain gabeko psikologia-mailarekin. Xabier Letek "*Euskal Herri nerea ezin zaitut maite*" kantatzen zuen eta Benito Lertxundik "*Oi ama Euskal Herri goxua*", beraz, irrigarria gertatzen zait EAJ-PNVk euskal kirolari-talde batek Euskal Herria izena hartzeari muzin egitea.

Duela gutxi galdetu nion Benito Lertxundiri, ekitaldi publiko batean, ea *Ez Dok Amairu* taldea ez al zen atzean gelditu, zaharkituta, gizarteak erradikaltasun handiagoa eskatzen zuelako. Bere erantzuna irmoa eta sendoa izan zen,

hain erakargarri egiten duen bere amorru horrekin esanda:  
*"Ez, hori gezurra da. Ez da izan ezer Ez Dok Amairu bera baina erradikalagorik"*.

Eta berarekin bat nator. Gai hauetan erradikala izan behar da, adeitasunez erradikala, baina erradikala, eta hori erreibindikatu egin behar da desegite intelektualaren garaiotan, «denak balio du»-ren izenean garenaz ere zalantza sorrarazi nahi digutenean. Garenak gara, ez hori baina gehiago, baina ezta gutxiago ere.

Eskerrik asko.

**Oharra:** Testu hau katalan batek eskatuta idatzi zuen Pakok, hark liburu bat katalanez idatzia zuelako, kantagintza euskaldun eta katalanari buruz... Donostian aurkeztu zuen liburu hori eta aurkezpen hartan laguntzeko eskatu zion Pakori, eta han irakurri zuen Pakok. Horregatik idatzi zuen gazteleraz eta hala irakurri zuen ekitaldi hartan.

Idazkiaren balioa ukaezina delako gailegoz ere argitaratua izan da Galiziako egunkari batean, han bizi den euskaldun batek itzulita. Katalanez ere argitaratzekotan da Donostiako ESPAI katalaneko webgunean jartzeko.

Merezi zuenez, Andoni Sarriegik baimena eskatu zion Pakori euskaratu eta Euskal Kantuzaleen webgunean jartzeko. Hala, Pakok, Andonik egindako itzulpena ontzat eman ondoren, webgune honetan jarria izan da.